

Euskal AEko merkataritza elektronikoak diru-kopuru gehiago izan du 2010ean, baina enpresa kopurua egonkor mantendu da

Merkataritza elektronikoaren salmenta guztiak gehitu dira (%18,5), baita erosketak ere (%14,2), 8.773,6 eta 5.284,8 milioi euro hurrenez hurren

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko merkataritza elektronikoak kopuru ekonomikoak aztertuta hazten jarraitu du, horretan parte hartzen duen enpresa kopurua konstante mantendu arren (+0,2 puntu). 2010. urtean sarearen bidez edo bestelako sistema elektronikoen bidez (mezu elektronikoa, EDI datu elektronikoen trukea, etab.) egindako negozio zifra 8.773,6 milioi eurokoa izan da salmenta elektronikoei dagokienez, eta 5.284,8 milioi eurokoa erosketei dagokienez.

Aurreko urtearen aldean, kopuru horiek %18,5 gehitu dira merkataritza elektroniko bidezko salmentei dagokienez eta %14,2 sistema hori erabiltzaile egindako erosketei dagokienez Euskal AEko enpresetan.

1. taula: Merkataritza elektroniko bidez egindako erosketak eta salmentak, lurraldearen eta enplegu-geruzaren arabera

	Erosketak (*)			Salmentak (*)		
	2009	2010	Δ 10/09	2009	2010	Δ 10/09
Euskal AE	4.626,4	5.284,8	14,2	7.401,8	8.773,6	18,5
Lurralde historikoa						
Araba/Álava	713,1	782,1	9,7	2.742,1	3.161,4	15,3
Bizkaia	2.564,6	2.889,8	12,7	2.635,7	3.141,8	19,2
Gipuzkoa	1.348,7	1.612,9	19,6	2.024,0	2.470,4	22,1
Enplegu-geruza						
0 - 9	1.725,2	1.764,5	2,3	1.096,7	1.528,5	39,4
≥ 10	2.901,2	3.520,3	21,3	6.305,1	7.245,1	14,9

(*) Euroak, milioikotan

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

Kopuru absolututan, eta lurralde historikoak aztertuta, Bizkaian egin da erosketak gehien; eta salmentetan Araba eta Bizkaia dira oraindik nagusi. Establezimenduen tamainari dagokionez, 10 langile edo gehiagoko enpresek erabili zuten sarrien merkataritza elektronikoa.

Merkataritza elektronikoa egiten duten Euskal AEko enpresak: 2010. urtean oso gutxi gehitu da merkataritza elektronikoa erabili duen Euskal AEko enpresa kopurua (ehunekoa): 0,2 puntu gehitu da. Gaur egun %15,1ak erabiltzen du sistema hori. Enpresek batez ere erosketak egiten dituzte (%14,2) eta gutxi batzuek salmentak (%3,9).

Kopuru ekonomikoak kontuan hartuta, salmenta elektronikoak erosketak elektronikoak baino askoz gehiago izan dira; alabaina, saltzen dutenak baino askoz gehiago dira bide elektronikoz erosten duten enpresak.

2. taula: Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen bilakaera %

	Establezimenduak guztira									
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Salerosketa elektronikoa	3,0	4,4	5,1	7,7	10,5	12,8	15,3	15,0	14,9	15,1
Erosketak	2,7	3,6	4,3	6,9	9,6	11,4	14,1	13,9	13,8	14,2
Salmentak	0,4	1,3	1,4	1,7	1,9	2,9	3,6	3,4	3,4	3,9
Erosketen gaineko (*)	9,6	11,4	17,4	15,2	15,5	18,2	20,7	22,6	24,9	28,1
Salmenten gaineko (*)	9,9	16,1	20,6	22,0	24,6	24,4	23,1	26,9	32,5	38,6
10 langile edo gehiago										
Salerosketa elektronikoa	6,4	10,0	10,9	13,6	19,5	20,4	24,0	22,2	23,7	23,1
Erosketak	5,1	8,3	8,7	11,2	17,3	17,7	21,4	19,1	20,2	20,3
Salmentak	1,8	2,8	3,7	4,2	5,1	6,4	7,8	8,0	8,0	8,5
Erosketen gaineko (*)	4,6	10,6	9,6	12,1	10,3	12,6	15,8	15,3	20,3	24,6
Salmenten gaineko (*)	12,7	13,4	15,5	15,0	19,4	21,7	31,5	28,6	34,2	38,4


(*) Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa eta salmenta guztien gaineko erosketa eta salmenta elektronikoen batez besteko %

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

Euskal AEn merkataritza elektronikoa ibili diren establezimenduak 28.000 inguru izan dira. Horietan, modu elektronikoa egin dituzten erosketak euren erosketa guztien %28,1 izan dira. Salmentak, berriz, salmenta guztien %38,6 izan dira.

Baina kopuruak bestelakoak dira enpresaren tamaina kontuan hartuz gero. 10 langile edo gehiagoko enpresen %23k egiten du merkataritza elektronikoa, aurreko urtearen aldean 0,6 puntu murriztuta; baina erosketak eta salmentak egiten dituzten enpresak bereiziz gero, bien ehunekoek egin dute gora. Atal honetan ere askoz gehiago dira erosketa elektronikoak egiten dituztenak (%20,3) eta gutxiago dira salmenta elektronikoak egiten dituztenak (%8,5).

1. grafikoa: 2010eko salmenta elektronikoak, erabilitako bitartekoaren arabera (%)




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

Erosketa elektronikoak egiteko bitartekoei dagokienez, %38,2 norberaren webgunearen bidez egin dira, %37,0 posta elektronikoaz egin dira (e-mail) eta gainerakoak (%24,8) EDIren eta beste sare batzuen bidez. Bestalde, salmenta elektronikoaren %49,6 EDI eta beste sare batzuen bidez egin dira, %23,9 posta elektronikoaren bidez eta %26,5 norberaren webgunearen bidez.

2010ean merkataritza elektronikoaren bidezko salmentak izan dituen bezero motari dagokionez, salmenta elektroniko guztien %86,7 beste enpresa batzuentzat izan da (B2B izeneko merkataritza), %12,5 kontsumitzaile partikularrentzat izan da (B2C) eta gainerako %0,8 beste bezero batzuentzat, herri administrazioarentzat esate baterako (B2G).

2. grafikoa: 2010eko salmenten helburua, bezero-motaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Juan Luis López González

Tel.: +34-945-01 75 08 Faxe: +34-945-01 75 01

[EUSKAL AEko INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA \(IGI\)-Enpresak inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[EUSKAL AEko INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA \(IGI\)-Enpresak inkestari buruzko datu-bankua](#)